



LEP 2017-18: LAGUNTZA JUDIZIALA (TXANDA IREKIA)

➤ TITULARREN LANGILEAK: lanpostuaz jabetzea

- **Lanpostuaz jabetzeko epea: 20 egun baliodun**, destinoak esleitzeko agindua BOEn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Agindu hori 2022ko ekainaren 9an argitaratuko da, eta, ondoren, epea ekainaren 10ean, ostirala, hasiko da, eta uztailaren 7an, osteguna, amaituko da.

- **Lanpostuaz jabetzeko lekua:** destinoa esleitu zaion lurralde historikoko EATean sinatuko da lanpostuaz jabetzea. Lanpostuaz jabetzen den egunean lan egingo da, eta, beraz, goizeko 9: 00etatik aurrera jabetu beharko da lanpostuaz.

➤ BARNEKO LANGILEAK: kargu-uzteak

- **Kargu-uztearen eguna:** bitarteko langileek lanpostua utziko dute **titularrak kargua hartzen duen egun berean**. Lana uzteko eguna lanegun bat da, eta, beraz, dagokion EATk sinatu beharko du kargu-uzte hori, lanaldiaren azken orduan.

- Bitarteko langileek agindu hau argitaratu baino lehen hartu beharko dituzte hartu gabe dituzten oporrak.

➤ BESTE ERKIDEGO BATERA DOAZEN TITULARRAK EDO BITARTEKOAK

- 2021eko ekainaren 9an, osteguna, Estatuko Aldizkari Ofizialean ekainaren 1eko Agindua argitaratuko da. Agindu horren bidez, destinoak ematen zaizkie Justizia Administrazioiko Laguntza Judizialeko Kidegoko funtzionarioei (txanda irekia), urtarrilaren 15eko JUS/60/2020 AGINDUAK deitutako hautaprobak gainditu zituztenei, bai EAEn, bai lurralde osoan.

- Antolaketa-arrazoiak direla eta, eskatzen da beste autonomia-erkidego batera joango diren pertsona guztiek, bai karrerako funtzionarioek bai bitartekoek, lehenbailehen jakinaraz diezagutela **personal_jus_provision@euskadi.eus** posta elektronikoaren bidez titularren kasuan eszedentzia izapidetzeko lanpostuaz jabetuko diren eguna (dagokion eranskina bidalita) edo bitarteko langileen kasuan lanpostua utziko duten eguna.